

**A**rgitalpen honek, 2006ko urriaren 28an Donostian *Argi-itzalak ETA politiko-militarra desegitean* izenburupean egin zen *Fernando Buesa Blanco Fundazioa / Aldaketa II. Topaketak* jardunaldiaren edukiak biltzen ditu.

Bi erakundeek, Gasteizen 2005eko urriaren 25ean sinatutako lankidetzako akordio markoaren bigarren edizioa da. Lehenengoa, elkarlan bide hau ireki zuena, *El significado politico de las victimas del terrorismo: el valor del Estado de Derecho y de la ciudadania* izenburuko argitalpena izan zen, 2005eko urriaren 28an egindako *I. Topaketak* jardunaldietako parte-hartzaileen txostenak jaso zituen<sup>1</sup>.

## **II. TOPAKETAK: PARTAIDEAK, IKUSPEGIAK ETA ARGITALPEN-TRATAMENDUA**

**Partaideak.** *Fernando Buesa Blanco Fundazioa / Aldaketa II. Topaketak* jardunaldietako parte-hartzaileak ETA pm-ren desegite prozesuari buruz hausnartzeko elkartu ziren eta, era berean, Euskadiko Ezkerrak (EE-k) Euskadiko politikagintzan bide eta arau demokratikoak egokitzeko izan zuen ibilbideari buruz gogoetak egiteko. Izan daiteken ETA-ren desagerpenaren aurrean, iraganetik ikasteko garrantzian pentsatu zen, «*argiak nabarmendu eta itzalak argitzeko*», «*oroitzea eraikitze*».

Parte hartu zuten guztiak, protagonista, lekuko edo azterturikoaren jakitun modura aritu ziren, iragana ulertu eta etorkizuna aurreikusten laguntzeko *intrahistoriaren* arlo edo

aspektuak azaltzeko ahalmenarekin. Garai hartan (2006ko urria) irekitako *Bake prozesuaren* eta bere etorkizunaren aurrean, guztiek zuhertasunez egin zituzten euren gogoetak; eszeptiko eta ezkorrak izan ziren. Orduan ere zalantza eta galdera asko eta sakonak ziren. Hilabete batzuk ostean, zalantza eta galdera horiek baieztatuak izan ziren, tamalez, 2006ko abenduaren 30ean Barajaseko aireportuko atentatuarekin, lehenik, eta ETA-k erabakitako tregoaren amaiera formalarekin ondoren, 2007ko ekainaren 5ean zenbait komunikabideetan jakinarazia izan zena.

*II. Topaketak* jardunaldietako zuzendarikide gisa Jesus Loza eta Joseba Arregi aritu ziren, Fundazioaren presidenteordea eta Aldaketako presidentea hurrenez hurren. Ekitaldiaren sarrera egin eta garapena koordinatzeko ardura izan zuten.

Parte-hartzaileen artean, garapen handiagoko mintzalariei zuzendutako lehenengo atalean, Kepa Aulestia, analista politikoa; Angeles Escriva, kazetaria; eta Xabier Markiegi, Rabat-eko Cervantes Institutoaren zuzendaria, izan ziren.

Bigarren atalean, *Mahai-inguruan*, azalpen laburragoekin, Xabier Aierdi, EHUKo Soziologia irakasleak; Teo Uriarte, Fundacion para la Libertad-eko gerenteak; eta Juan Infante abokatuak parte hartu zuten.

Ondoren, *Mahaiko* partaide eta jardunaldietan bildu ziren pertsonak osaturiko eztabaidarako gordetako tarte batekin osatu ziren *II. Topaketak*.

**Ikuspegiak.** Ordezkatzen dituzten erakundeen izenean, J. Loza eta J. Arregik aurkezpena egin ondoren, partaideek *II. Topaketei* euren ikuspegi eta esperientziatik ekin zioten.

Kepa Aulestiak, erakunde terroristaren ibilbidea zehazten duten *ikuskeren* ezaugarrietara eta barne *logiketara* hurbilketa argia egin zuen: *betikotasunaren logika, borroka armatua tabu gisa eta autodisoluzioaren inexistentzia*. Baita ere, armen atzean gordetzen diren *gezurretaz* aritu zen, *Sarrera modura: ETA eta bizirik irauteko bere sena* izeneko mintzaldiaren ondoren izan zen galdera txandari erantzun aurretik.

18 | 19

Angeles Escrivak, Zazpigarrenen *agurra: egungo elkarrizketa prozesuaren aurrekaria* txostena osatzen lagundu zuten gertakari eta protagonisten inguruan egindako kazetaritza-ikerketa azaldu zuen. Bere parte-hartzea terrorismoaren biktimen oroitzapenarekin osatu zuen, Jose Ignacio Ustaran, ETA-k 1980 urtean eraildako UCD-ko zuzendariaren seme baten gutunaren irakurketarekin, eta indarkeriak lortzen dituen errentagarritasun politiko posibleen inguruan irekitako galderarekin.

---

<sup>1</sup> *Lankidetzako akordio markoa*, Fernando Buesa Blanco Fundazioko presidentek, Natividad Rodriguezek, eta Aldaketa hiritarren plataformako presidentek, Joseba Arregik, izenpetu zuten. Bere edukia 3. Eranskinean aurki daiteke.

Xabier Markiegik, ETA pm-ren arma uztearen prozesuaren oinarriak agertu zituen gardentasun kontzeptual eta historikoarekin, baita EE-k izan zuen paper erabakigarria ere: *Euskadiko Ezkerra: euskal pedagogia politikoari ekarpena*. Atzera begiratuz eta analisia eginez, mintzalariak «*hiritarren nazioa*» sortzeko ideia-indarra proposatu zuen.

Xabier Aierdik berriz, lehen pertsonan egindako testigantzarekin, *ETA pm-ren autodisoluzioa Euskadiko Ezkerrako militante baten ikuspegitik* txostenari ekin zion. EE-ren *porrotak* eta birtualtasunei buruz hausnartu zen, pluralismoaren bilaketa eta politikaren *zeharkakotasunari* buruz. Gaur egungo politika kultura aldatzea ere defendatu zuen *harremanaren kulturaren* bidez, *Unamuno errorea* eta *Arana errorea* gaindituz.

Teo Uriartek bere oroimen pertsonala azaldu zuen *ETA pm eta ETA m-ren amaiera: "Geu, traidoreak"* ponentzian. Bere *berreskurapen* historikoarekin, arrazionalitate politikoaren logika eta logika militaristaren arteko borroka agertu zuen. *Traidore* eta *damututakoaren kontzeptuaren* aldarrikapenarekin batera, terrorismoaren *biktimak politikoki kontuan* hartzeko beharra defendatu zuen, gizarte espainiarraren diskurtso politikoarekin bat egin dezaten.

Juan Infante, Transizio garaian parte hartu zuen ikuspegi berezi batetik eta *artxibo* pribilegiatua izanik aritu zen *ETA pm-ren autodisoluzioa intendentzia juridikotik* txostenean. Egungo

*prozesuari* buruz, ETA-ren immobilismoa dela eta ezkor agertu zen eta Espainiako bi alderdi nagusien arteko akordio politiko baten beharraz mintzatu zen; PSOE eta PP-ren (besteen laguntzarekin) arteko akordioa, botere publikoek beharrezko indarra izan dezaten.

**Argitalpen-tratamendua.** Argitalpen honek, aurkezle eta partaideen hitzaldiak biltzen ditu, eurek aurkeztutakoaren transkripzioetan oinarrituz. Argitalpen lana, hitzaldiak testu idatziaren izaerara egokitzen saiatu da egileen lankidetzarekin, baina orokorrean jatorrian zuten ahozko izaera baztertu gabe.

20 | 21

Era berean, hitzaldien edukiak kontutan hartuz, argitalpen taldea *Topaketa* hauetan landu diren gaiak aberasten saiatu da edizio oharrekin (azalpenezkoak, bibliografikoak eta periodistikoak); partaide bakoitzaren profil laburra ere gehitu da.

Argitalpena hiru eranskin dokumentalekin osatu da: // *Topaketetan* eztabaidatutakoaren hurbilketa bibliografikoa (gaiari buruzko *erreferentzia-corpus* izan daiteken saiakera), aipaturiko *Lankidetzak akordio markoa* eta jardunaldien *Programa*. Azkenik, Aurkibide onomastikoa ere gehitu da, aurkezpen eta hitzaldietan aipatutako pertsonen, erakundeen edo entitateen bilaketa errazteko.

**Argitalpen taldea**